

EZTABAIDA TALDEETAKO DINAMIKA

1.- DINAMIKA OROKORRA

Proposatutako dimentsioen gaineko eztabaida egingo dugu talde desberdinetan. Lan taldeak osatzeko; dimentsio bakoitzak kolore bat eta forma bat izango du, (karpetaaren azalean dagoen pegatinan azaltzen dena). Eztabaida taldeak 10-12 pertsonaz osatuta izango dira.

Eztabaidarako dimentsioak ondokoak izango dira: **IKASLEA, IRAKASLEA, IKASTE KOMUNITATEA eta SAREA.**

Lan talde bakoitzak dimentsio bat eztabaidatuko du, ondoren Talde txikietan egindako hausnarketak partekatuko ditugu.

2.- EZTABAIDA TALDEETAN EGINGO DUGUN DINAMIKA.

Eztabaidak 60´ iraupena izango du eta ondoko rolak egongo dira:

- Dinamizatzailea: Eztabaida sustatu eta denbora eta parte hartzearen kudeaketaz arduratuko da.
- Aktalari: Eztabaidan azaltzen diren ideia nagusiak jasoko ditu
- Bozeraile: Eztabaidaren emaitzak azalduko ditu

Dinamika:

1. Elkar ezagutzen: aurkezpen Laburra

2. Elkarren arteko lana irudikatzen: *Makinaren dinamika*

3. Eztabaida:

Egoera baten azterketan oinarrituz dimentsio bakoitzaren gakoak eta adibideak identifikatu.

Gakoak ordenatzen

Priorizatu

Idea nagusiak parrafo batean jaso: *1.2.4 teknika*

3.- DINAMIKAREN ONDORIOAK

Taldeetan identifikatutako ondorioak partekatu

Ondorioak bertsotan Miren Amuriza

4.- DIMENTSIOAK

4.1. IRAKASLEA

Narrazioa.

Gaur 16:30 etan mailako irakasleen bilera izan dugu. Bileran hau astean 3 egunetan burutzen dugu eta mailan gauden irakasle guztiak egoten gara, PT-a, atzerriko hizkuntzako irakaslea, hezkuntza artistikokoa eta bi tutore, astean behin hezkuntza fisikoko irakaslea ere bertaratzen da.

Jarraitzen dugun dinamika oso erraza da, urteak dira sistematikoki gure lan jarduneko egoera deigarriak jasotzen ditugula, hasiera batean "diario" edo eguneroko baten bidez jasotzen genuen eta orain une edo momentu deigarrien jasotzea egiten dugu. Atentzioa deitzen diguten momentuak gure koadernoan apuntatzen ditugu eta behin gure jarduna amaitu denean esanguratsuen garatzen dugu. Pasarte hauek dira bilerara ekartzen ditugunak.

Gaur nire pasarte baten inguruko lanketa egin dugu: "Goiz osoan mekanikako iker taldean buru belarri aritu dira, motorraren alderdi elektrikoetara itertze bide bat ematen saiatzen ari dira eta egin dituzten proposamenei Nagoreren iPad-arekin argazkiak ateratu dituzte honek bere amari erakutsi eta lagun diezaien. Nagoreri komunikadorea aldatu diotenetik askoz ere komunikazio egoera azkarragoak izaten ditu. 11:00etan patioa joan dira, hasieran Josu futbolekoekin aritu da, 2 minutu inguru, korrika zelaiaren mutur batetik bestera, eta baloia gertu izan duenean indar osoz eman dio ostikoa. Indarrez, besoak mugituz eta baloiaren atzetik korrika egon da beste 2 minutu baina baloiaren bila itsuturik Jhasam-i bultzatzen dio eta hau lurrera erori denean eskaileratan eseri da eta bertanegon da atsedean garai osoa."

Bilerako aktan gako hauek adostu ditugu:

• Gelako orduetan ondo ikusten dugu, kontentu eta kideekin harreman positiboetan. Patioko orduarekin eta espazio honek dituen ezaugarriez aritu gara:

- Gelan norabide edo helmuga bat daukate, bera taldeko kide sentitzen da, ekarpenak egiten ditu eta taldeak irudi positiboa itzultzen dio.
- Patioan naturalki sortzen dira jolas taldeak.
- Agian aproposa izan daiteke jolas espazio ezberdin bat sortzea, harreman eta solas egoera berriak eraiki ahal izateko.
- Irakasle batek jolasten egoten zein jolastu gabe egoteko eskubidea daukala ere proposatu du. Nahiz eta eskaileratan egon ondo ikusten dugula eta gela orduetan burua beste toki batean izaten duela baina patio garaian bere etxeko egoera datorkiola burura. Etxe-gabetze agindua laster espero dute eta familiako tentsioa nonbait erakutsi beharko dutenaz ere hausnartu dugu. Eskolako salaketa gutunez gain herri mailan martxan dauden espazio eta foroetan gure presentzian mantentzen jarraitzeko organigrama ere bete dugu.
- Jolas osasungarri eta proposamen berrien bilaketa egingo dugula adostu dugu.

4.2. ESKOLA

Narrazioa

Atzo lagun batek galdetu zidan nire eskola nolakoa den eta nik ondokoa erantzun nion: "Asko aldatu da azken urte hauetan gure eskola barneko eta kanpoko harremana, denak ezagutzen gera eta nahiz eta oso ezberdinak izan elkar asko maite dugula esan genezake.

Gure eskolako berezitasunak hauek direla esango nuke:

1. Ikasleak dira guretzat garrantzitsuen, ondo eta kontentu egon behar dira ikasi ahal izateko eta hau da gure erronka.

2. Irakasleen arteko konfidantza giro handia dago. Gustora sentitzen gara eta elkarrekin asko ikasten dugu besteen ahotsa entzuteko aukera izaten dut eta nirea ere garrantzitsua dela sumatzen dut, gainera, eskolan hartzen diren erabakiak denon partaidetzan oinarritzen dira.

Ondokoak ditugu adibideak.

- Astean 3 egunetan mailako irakasle taldea batzen gara gure praktika profesionalaz hausnartzeko.
- Irakasle laborategiak ditugu, irakasle bakoitzaren interesgunearen arabera urtero gai horretan sakondu ahal izateko aukerak izaten ditugu, ikastaroetan parte hartuz, ... eta parte hartze honekin batera ikasten ari gara gelara eraman eta esperientzia hau kideekin partekatzen dugu. Laborategiak bakarka edo talde izaera har dezake eta guztion artean adosten dugu estrategikoa izan daiteken edo ez. Laborategietan interes pertsonalak, eskolakoak eta komunitatekoak oinarritzat hartzen ditugu.
- Hedatze espazioak: hilerio gai edo jardun baten hedatze batzarra burutzen dugu, hedatze espazioetan Eskolako komunitateko partaideen parte hartzea bermatzen dugu. Taldeka prestatzen da eta ardatza gaia edo esperientzia hedatzeaz gain gure artean ondo pasa eta harremanak indartzea dugu helburua. Jolasak, merendolak, partekatze espazio berri eta esperientzialak egiten ditugu eta beti barre egin ahal izateko aukera daukagu.
- Gurasoei irekia: gelan egoteko aukera guraso guztiei zabalik dago baita eskola antolaketa eta proposamen anitzetarako erabili ere.
- Herriarekiko harreman handiak ditugu eta herrietatik jaso ditzakegun ekarpenak eta guk eskaini ditzakegunak identifikatu ditugu eta aprobetxatzen saiatzen gara.

4.3.IKASLEA

Narrazioa.

Praktika garaian behatutako egoera batzuk kontatuko dizkizuet jarraian.
25 ikaslez osaturiko 6 urteko gelan duela aste batzuk mitologiarekin erlazionaturiko gaia jorratzen hasi dira eskolan, Orain arte ondoko jarduera burutuko dituzte:

1. Karmele, musikako irakasleak, (Ataundarra) Ataungo Jentilen jaitsiera bezperan ikasleei festara joateko gonbitea luzatu zitzaien.
2. Astelehenean festa honetako bideo zati bat ikusi zuten. Bideoa ikusi ondoren eta ikasleengandik sortu ziren galderak ikusita ondoko proposamena luzatu zitzaien: "pertsonai mitologiko asko bizi dira Ataunen, nahi baduzue joan gaitzke Joxe Miel Barandiaran Museora eta bertan ezagutzeko aukera izango dugu.
3. Pentsatu eta egin.Hurrengo astean museo bisitatu zuten
4. Gurasoek ezagutzen dituzten Pertsonai Mitologikoak ekarri zituzten.
5. Museoan jasotako eta etxetik ekarritako informazioarekin gelako murala eraiki zuten.
7. Beste mailetako ikasleei antzerki bidez ikasitakoa erakusteko erabakia hartu zuten.

Egun horretan jolas ordutik bueltako momentuan egoera hau gertatu zen:

Amaia: Andereño, Lamiaren papera ez dau!

Jon: Ez dau! Nagore!!! Lamia ez dau!!!!

Nagore Irakaslea: begiratu ondo ea armairu atzera erori den!

Alejandro: Eeeeeee!!!! Ez dau!!!! Mari!

Laia: Nagore! Esku beltza dau arbelan!

Ikasle asko: Mari! Marik Lamia eraman du.

Nagore Irakaslea: Ez da posible! Atzo Tartalo eraman zuen, aurrekoan Sugar, ...

Nagore Irakasleak: Esku beltza ahal dago Adab? Adab eta beste ikasle askok erantzun zuten: bai, bai, hor...

5 ikasle gelako atzealdean eseri dira zirkulu erdi forman, kontaketa eta asanblada espazioa da lurtean plastiko goxo bat dauka bertan eser daitezten eta ahulki txiki bat dago paretaren erdian.

Ni ere zoruan eseri naiz eta Nagore irakaslea ikaslez inguratua dagoela beltzez zikindutako behatz markak dituen gutuna jasotzen du arbeleko izkinatik eta poliki poliki gelaren atzealdera etortzen dira. Denak esertzen dira Nagore Irakasleari begira. Ikasleen artean ukitzen eta tonu baxuz hitz egiten ari dira eta Nagorek eskuetan daukan gutuna begiratzen dute.

Nagorek ertzak erreak dituen paper marroi bat ateratzen du gutunetik. Ikasle guztiak berari begira daude eta ez da soinurik entzuten.

Nagore: " Ez haserretu eta lanean jarraitu, hala bada laster sorpresaz zarete txoratu. Mari"

10 ikasle batera: Mari da! Mari... sorpresa...

Nagore: Irakurriko ditugu Marik ekarri dizkigun 3 gutunak ea deskubritzen dugun zerbait?

Egurrezko kaxa beltz txiki batetik ertzak erreak dituen bi paper marroi ateratzen ditu Nagorek.

Ikasleak berari begira daude eta ez da soinurik entzuten:

Nagorek irakurtzen du: "Kaixo kaixo, Joxe Miel Barandiaran Museoan ikusi zintuedan eta zuen autobusa jarraituz iritsi naiz zuen Alaia ikastetxera. Oso jatorrak eta dibertigarriak zaretenez zuekin egun batzuk geratuko naiz. Ez saiatu ni topatzen... ez nauzue aurkituko... hegan egin dezaket... dama deitzen

Nagore: "Antzerkia egitea iruditzen zait paregabea! Ze bizkor asmatu duzuen Mari naizela! Ez

haserretu kentzegtik kartelak, horrela jarraitu ezker izango duzue sorpresa itzela!”

SAREA

Narrazioa

Lagun batek galdetu zidan zergatik aipatzen dut etengabe Eskolak saretu behar ditugula ea ez dugun nahiko lan gelan egiten dugunaz. Nik erantzun diot Eskolaz kanpoko erakundeekin ditugun harremani deitzen diogu SAREA eta honen helburua eskolako bera dela, gure ikasle guztien ikastea hobetzea, baina onartuz guk bakarrik ezin dugula eta gizarteko eragile guztiek honetan lagundu eta batera jardun behar dugula.

Eta ondoko saretze adibide jarri dizkiot::

1. Gure ikasleen eskubideak betetzea bermatu edo lortu ahal izateko saiatzen gara herri mailan sortzen diren taldeetan parte hartzen, gau egun Stop desaucios, SOS arrazakeria, emakume txokoa, aisialdi elkarteetan eta elikagai bankuan parte hartzen dugu. Era berean antolatzen diren bilgune eta salaketa espazioetan ere gure presentzia bermatzen saiatzen gara.

2. Udalarekin, nola ez, harreman, maiztasun eta jarraipen estuko batzarrak ditugu eta era berean publikoak diren erakunde guztiekin harremanak ditugu proposamen hezigarri eta partekatuekin, adibidez: zaharren egoitza, maila guztietako ikasleak beraien proiektuak aurkeztera edo egoitzako eskaintza edo proposamenetan parte hartzen dute.

3. Hezkuntza saileko SAREA: berritzegune, osasun eta gizarte zerbitzuak.

4. IKASKIDE SAREA: Ikaskiden egon diren eskolen sarea da, urtean 3 tan batzen gara huhezin gai ezberdinak lantzeko eta ikasturtean zehar esperientziak partekatu, materiala eskuratu, bisitak egin, ... aukera daukagu ikastetxe ezberdinen bide eta proposamenak partekatzeko eta elkarrekin ikasteko. Sare honetan Unibertsitate irakasleek ere parte hartzen dute eta hausnarketa eta ikerketa espazio modura definituko nuke. Gaurkotuak diren gaiak gerturatzeaz gain gure errealitatearen kanpo begirada eskaini eta hausnartze bideak identifikatzeko harremana da.

Gakoak